



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Ariasman**
–Euskal baleazaleen istorio bat–

Egilea / Autor: **Tapio Koivukari**
Saila / Colección: Narratiba, 101
ISBN / EAN: 978-84-9109-072-4
Salneurria / Precio: 22 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / N° páginas: 416
Formatua / Formato: 15 x 22 cm

Egilea / El autor

Tapio Koivukari (1959) idazle eta itzultzaileak teologia masterra egin zuen. Poema epikoak eta kostaldeko istorioak idazteagatik da famatua; batez ere, Finlandiako uharteetako bizimodua irudikatzen duten nobelei esker eta islandieratik hainbat obra itzuli dituelako ezagutzen da. Koivukariren narratiban bizitzaren konplexutasuna islatzen da, eta haren hitzek mundu berriak sortzeko indarra dute.

Koivukarik Helsinkin ikasi zuen, eta urte batzuek Islandian bizi ondoren, orain jaioterrian bizi da, Finlandiako mendebaldeko kostan, Rauma izeneko hiri txikian.

Lana / La obra

1615ean, ekaitz batek hiru euskal baleontzi txikitu zituen Islandian, eta udazken hartan bertako biztanle batzuek tripulazioko 31 kide akabatu zituzten, Ari Magnússon magistratuaren aginduz. Euskal baleazaleen sarraski hori da *Ariasman* nobela historiko honen oinarria.

Bi urte lehenago, beste euskaldun batzuei bale-arrantzarako lizentzia saldu zien *Ariasmanek*, alegia, Ari Magnússon berberak.

Nobelak gertakizun beraren bi ikuspegi uzartzen ditu, euskaldunena eta islandiarrena. 1615eko espedizioan, Martin de Villafranca kapitain donostiarra zihoan, gizon gaztea eta baleazale trebea, baina tripulazio osoaz arduratzea lan handiegia gertatu zitzaion, eta Ternuako indigenekin eskarmentu pixka bat izan arren, ez zitzaion hain ongi joan bikingoen ondorengoekin.

Istorio honek garaiko ohitura eta sinesmentan murgildu eta, bizimoduaren gordina erakutsiko digu. Ongi hasi arren, gaizki bukatu zen espedizio baten kontakizuna da *Ariasman*, Finlandian eta Islandian arrakasta handia izan ondoren, orain euskaraz ere arrakastarako bidea zabaltzen zaiona.

